

Euskarak ez du sexurik, baina...

Maidar Iantzi Goienetxe

A ita-semeek is-
tripua izan
dute eta aita
hil egin da.

Semea ospitalera eraman eta ziru-
jaua oihuka hasi da: Ezin diot
ebakuntzarik egin, nire semea
da!». Horixe “Tribuaren berbak”
saioa atal batean, Kike Amona-
rrizek etxekoei eta Zarautzen to-
patu dituen herritarrei planteatu
dien asmakizuna. Mikro aitzine-
an, esaldiak behin eta berriro ira-
kurtzen, isiltasuna eta irribarre-
ak, jendea harri eta zur. «Ezin
liteke!», diote gizon-emakumeek,
zahar eta gazteek. «Adarrak egon
dira hortik edo?». «Oraingo fami-
lia ezberdinak izango dira, hori
bururatzen zait»...

Sofan ere pentsatu eta pentsa-
tu ari gara (zuk, irakurle, zer dio-
zu?)... Guri antzeko erantzunak
etortzen zaizkigu... Harik eta el-
karrizketatutako batek bota duen
arte: «Medikua ama da». Uste
dut aurpegi berdintsua gelditu
zaigula denoi. Nola ez zait buru-
ratu? Emakumezko mediku uga-
ri dago ba... Bakarrak asmatu du,
eta ariketa aurretik zekielako.

Beti aditu dugu euskarak ez
duela generorik, berez, ez du, bai-
na... Zirujaua erran eta gizon bat
irudikatzen dugu bata jantzita.
Hor ikusten da zenbateraino di-
tugun barneratuta ideia jakin ba-
tzuk; normala ere bada urtetako
historiaren eta heziketaren on-
dorio den neurrian, eta halako
ariketak onak direla uste dut, gu-
re barrenak mugitzeko.

Egunkarian idazterakoan, adi-
bidez, zailtasunak sortzen zaizki-
gu euskaratik gaztelaniara itzul-
tzean, azken honetan generoak
bereizten direlako eta zirujau
«cirujano» edo «cirujana» itzuli
behar delako. Azken urteetan
«ciudadanas y ciudadanos» eta
halako formulak zabaldu dira,
azkenaldian «miembra» hitza
ere sortu da. Euskaraz errazagoa
dugula pentsatu izan dut, baina
jabetu naiz hizkuntzak ez direla
sexista, hiztunak baizik. •

«Mugimendu
feminista, edonon
eta edonola, edozein
ordutan eta edozein
korrontekoa!
Izugarri gustatzen
zait! Mugimendu
horrek
baikortasuna
eragiten du, bai eta
gainerako
pertsonek alde
egiteko gogoia ere»



rria da gure herrian gertatzen
ari dena, feminizidioari eta ho-
rri guztiari modu integralean
aurre egin beharrean gaude, eta
horretan ari gara.

Halere, orain 40 urte, ni femi-
nismoan murgildu nintzenean
oso gutxi ginen eta eragin eska-
sa genuen. Orain milioika ema-
kumeren ahotsa gara, milioika
nahi eta beharren ahotsa, baina
baita eraikitako milioika alter-
natiben ahotsa ere. Egun, uni-
bertsitate esanguratsu guztie-
tan gaude, bertan dira genero
ikerketak... eta nazioarteko poli-
tiketan ere eragiten dugu. Ho-
rrek sekulako plazera ematen
du. Gauzak asko aldatu dira.
Egun, gobernu askok berdinta-
sunaren irizpidea sartu beste
erremediorik ez du. Hau guztia
orain 40 urte irudikatzea ere
ezinezkoa zen.

Nola ikusten duzu mugimendu feminista?

Edonon eta edonola, edozein or-
dutan eta edozein korrontekoa,
izugarri gustatzen zait!

Ni ez, baina feminista asko oso
dibertigarriak dira, jaia eta dantza
asko gustatzen zaie. Mugimendu
honek baikortasuna eragiten du,
bai eta gainontzeko pertsonen al-
de egiteko gogoia ere.

Eta osasuntsu ikusten duzu?

Nola ez dut osasuntsu ikusiko,
hain denbora gutxian lortu du-
gun guztiarekin? Aurrerapen
apartak egin ditugu! Feminis-
moak bestelako geroarekin
amesteko aukera eskaini die
pertsonei. Hori da feminismoa-
ren ekarpen handiena. Oso une
zailean gaude, kapitalismo bor-
titz eta zital honek ongizate es-
tatua ezabatzea helburu duela-
ko. Gerra-ondorengo ekarpen
handiena izan zen ongizate es-
tatua, hezkuntza zein osasuna
jasotzeko milioika pertsonen
aukera bakarra.

Niri izugarrizko ikara ematen
dit ongizate estaturik gabeko
geroak. Horren aurrean, baina,
feminismoak kooperazio kultu-
ra bat dakar, bakearen eta giza
eskubideen errespetuaren kul-
tura bat, eta, beraz, oso bide ga-
rrantzitsua da. Noski, bestelako
mugimendu garaikideekin bate-

ra ibili beharrekoa, datorrenari
modu eraikitzailean aurre egi-
teko.

Mugimendu feministaren zein lorpen nabarmenduko zenuke?

Haurdunaldiko lehen 12 aste-
tan abortoa erabat askea izateko
eskubidea orain dela gutxi lortu
dugu nire herrian. Hori luxu bat
da iruditu zait. Amatasun libre
eta nahierakoaren aldeko borro-
ka, gainera, lehen borroketako
bat izan nuen. Adostutakoa be-
tetzea egiaztatu behar dugu
orain, eta neska gazteek euren
gorputzarekin eta sexualitate-
arekin nahi dutena egiteko auke-
ra izatea ziurtatu.

Beste hamaika eskubideren
alde ere egin behar izan dut, eta
borroka horiek kausa garaikide
eta unibertsal bihurtzeko, ema-
kumeen giza eskubide izendatu
ditugu. Berriz ere gizaki bihur-
tzea luxu bat da, ezta? [barreak].
Horretan guztian parte hartzea
izugarria da. Borrokan egin di-
tudan lau hamarkadetan alda-
keta nabarmenak eman dira.

Eta oraindik irabazi ez den bo- rroka bat aipatu beharko baze- nu, zein aukeratuko zenuke?

Emakumeen Giza Eskubideak
eta, bereziki, neskatoenak. Nire
konpromiso behinena da.
NBEk, gainera, munduko nes-
katoei eskaini die 2015 urtea.
Euren egoera munduan nola-
koa den ikertu nahi du. Oso ga-
rrantzitsua da neskatoen giza
eskubideak babestu eta susta-
tzea. Nire herrialdean, Mexi-
kon, milioika neskato daude
pobrezian, marjinazioan, baz-
terkerian eta miserian. Gertu-
tik bizi dudalako nago sentsi-
bilizatuta, baita generoaren
zein etniaren ikuspegietatik
ere. Asko larritzen nau, etnien
oinarritutako bazterkeria. He-
rri indigenak bere eskubideak
eraikitzen ari dira oraindik.
Horrelako dibertsitate etnikoa
izateaz harro egon beharko gi-
nateke eta, autonomia eta per-
tenentzia duten herri gisa ai-
tortu beharko genituzke herri
indigenak, benetako estatu de-
mokratiko bat bihurtu ahal
izateko.